

Jakin Talde historikoa: euskara batuaren memoria eta etorkizuna

Joan Mari Torrealdai
Soziologoa eta Jakin Taldeko kidea

Baionako Biltzarrak JAKIN ez zuen ustekabeen harra-
patu.

1960ko hamarraldian sartu aurretik JAKINEK bere batasun bidea lantzen ziharduen, aldizkariko idazleen artean (Euskal Herri osokoak), eta aldizkariari begira. Aldizkarian bertan kultura mailako hizkuntza finkatu eta bateratzea zen JAKINEN orduko helburua.

1964ko JAKINEN udako bileran, Baionakoa baino zenbait hilabete lehenago, zera erabaki zen, Baionan hartuko ziren erabakiak aurretiaz onartzen genituela, eta Joseba Intxausti hara bidaltzea.

Baionako Erabakiak eskuan, JAKINEK erabaki edo gomendio haien arabera idaztera behartu zuen idazlea (JAKIN 18, 1965):

JAKINEK erabaki hauek guztiak onartu egin ditu, eta bete egingo ditu [...] lege hauek obligatu egingo dute [...] Hemendik aurrera, nahiz idazleak erabaki hauek gorde ez, eta artikulua lege hoiek alde batera utzita igorri, JAKINEKO zuzendaritzak zuzendu egingo ditu.

Batasun asmo bera azaldu genuen Ermuko bileran ere (1968): «JAKIN aldizkaria oraindik lotzen da Euskaltzaindiak hartuko dituen erabakietara».

Erabakiak hartu bai, baina ondorioak jasan ere bai. Euskara batuaren etsaiek jopuntuan hartu gintuzten, boikoterako deiak egon ziren, baja asko izan genuen, belaunaldi zahar ia osoa esango nuke. Nemesio Etxanizek gerra santura dei egin zuen. Honela idazten dio Santi Onaindiari: «Guziok JAKINEN erronkari erantzun bear diogu. [...] Ia, ba, atzartzen dituzun erdi-lotan dauden 'H'ren kontrako guziak».

Santi Onaindiak berak esana zuen nonbait JAKINEN posizionamendu hori gertatu ez balitz, euskara batuak ez zuela aurrera egingo. Askotxo, ezta?

JAKINEN erabakia behar bezala baloratzeko, testuingurua kontuan izan behar da. Hona datu bat: Baionako Erabakieta-tik sei urtera eta Arantzazuko Biltzarretik bira, 1970ean, zortzi aldizkarik uko egiten diote Euskaltzaindiaren erabakiari, eta erria (horrelaxe, H gabe), herri analfabetoa, hartzen dute maisutzat: «Zertan egin batasuna eta nolako abiaduran eta abar, erriak erakutsiko digu ta jarriko neurria. Erria aitatzean, au esan nai da: Ikasten jardun gabe euskera dakin erria».

Komunikabide sinatzaileen artean pisu handikoak daude: *Herria*, *Goiz Argi*, *Zeruko Argia*, *Agur*, *Karmel*, *Kili-Kili*, *Loyolako Irratia*, *La Voz de Guipúzcoa*-ko irratsaioko arduradunak.

JAKINEK harrotasunez errebindika dezake bere jarrera ausera eta emankorra batasunaren prozesu eraikitzailean.

Euskara batua bidelagun, are tresna erabakigarri, izan dute euskalgintzak eta kulturgintzak bere garapen modernoan, hala nola, irakaskuntzan, argitalgintzan, aldizkarigintzan, kazetaritza idatzi eta ikus-entzunezkoan, literaturan, kantugintza berrian, bertso-gintzan.

Bestela esan, euskara batu gabe nola irudika genezake euskararen garapen intelektual eta kultural garaikidea?

Bestalde, euskara batuak merkatua sortu dio euskarari, bizitza zibila eta kultua.

Euskara batuarekin lehen aldiz izan du Euskal Herriak bere hizkuntza estandarra, mugarik gabea, guztiona, herri izateko komunikazio erreminta. Euskaldun ororentzat elkar

ulertzeko eta elkarrekin aritzeko tresna bihurtu du euskara euskara batuak. Lehen aldiz historian. Herri izaera, nazio izaera ekarri du euskara batuak.

Euskara batuaren prozesu eraikitzaileak sortu eta bultzatu zuen hala alfabetatzea nola euskalduntzea. Alegia, jendeak 'bere hizkuntza nazionala' ikasi eta bereganatu nahi izan zuen. Hori batetik, eta bestetik, bere etxeko euskara mintzatua zekienak, horri motz iritzita, guztiona eta hizkuntza osoa izango zen estandarra ikastera jo zuen. Hori da euskara batua, ez gramatika, baizik eta dinamika.

Euskara batuaren erronkak euskararen berberak dira. Biziko bada, euskara batuan biziko da. Euskara baturik gabe gureak egin du.

Honela zioen Koldo Mitxelena:

Eguzkia bezain argi ikus daiteke batasunik gabe ez dugula euskararik izango bihar edo etzi. Batasuna ez da aski den baldintza, baina bai premiazko eta ezinbesteko, hizkuntza biziko baldin bada.

Euskara batua ez dago guztiz burutua. Bere misioa beteko baldin badu, gizarte modernoaren premietara egokituz joan beharko du, zertan esanik ez. Euskarak bere erregistroak aberastuz jarraitu beharko du, kultur gailu gisa, komunikazio tresna bezala, hizkuntza estandar moduan.

Berrikitan modan jarri da euskara batuarekiko distantzia markatzea, hotza, artifiziala, geza, zaila omen da. Jende gazte asko dago joera edo jarrera horretan.

Zer kontrajartzen diote gaur euskara batuari? Edota euskalki jasoari? Norbere euskara, 'naturala', 'jatorra' omen dena. Bestea, euskara batua, ez bezala, noski.

Norbaitek konbentzitu egin beharko nau 'naturalagoa' eta 'jatorragoa' dela 'ingoixut' 'gingo dizut' baino, 'eurixe' 'euria' baino, 'noaua' 'nora hoa' baino, 'inbikoxoagu' 'egin beharko diagu' baino, 'direz' 'dira' baino.

Horrela hitz egitea jatorragoa dela? Jatorragoa ez behintzat. Lokalagoa, hori seguru. Zer irabazten dugu horrekin? Atxikimendu afektiboa? Eta?


Jarri al gara euskaldun berrien larruan? Euskaldun berriek zer egin behar dute euskara jatorra bereganatzeko? Azpeitian, Bermeon edo Altzürükün alfabetatze masterra? Edota bigarren mailako euskaldunak izatera kondentatuak al daude euskara batudunak, hots, euskaldun artifizialak, gezak, hotzak, gozakaitzak?

Eta, bestetik, jatorragoa al da fonetismo eta txokoko kontrakzio guztiekin EITBn aritzea, euskaldun guztiongana zuzenduz? Hizkera hori ez da erregistro komunikatiboa maila horretan. Bereiz ditzagun mailak, funtzioak eta jardun publikoa eta jardun pribatua.

Nire ustez, premiazkoa da joera horri galga lehenbailehen jartzea. Moda edo jarrera hori indarrean dago, gazteen artean batez ere. Euskaltzaindiak, nire ustez, orain baino lehen heldu behar zion aferari.

Sekula ez omen da berandu. Are, aurten aukera aparta du euskararen akademiak, 50. urteurrenaren karietara.

Euskara batuari zor zaion duintasuna eta prestigioa aitortu behar dio, aurrena.

Eta gero garbi utzi, behingoz, euskara batua euskara estandarra dela, beste nazioetan bezala ezinbestekoa, jardun formal eta ez formaletarako balio duena, jaiotzatik heriotzara, hizkuntza osoa eta funtzio guztietarako: sentimenduak eta pentsamenduak adierazteko, eta berdinean sare sozialetan erabiltzeko edo umorea egiteko. 

Joseba Intxausti

Historialaria eta Jakin Taldeko kidea

1 964an zortzi urte bete ziren JAKIN aldizkaria sortu zenetik (1956). Sortzetik bertatik sustatu zen lankideen kanpoko harremanen sarea, eta jada bazekiten Euskal Herriko erlijiosogai eta apaizgai euskaltzaleek beren Ikastetxeko ikasgaiak euskaraz eman eta zabaltzeko aukerarik bazutela argitalpen berrian. Esan dezadan, beraz, bere neurrian, 1964rako heldutasun mailaren bat bazuela JAKINEK.

Lankide guztien idazkera sakabanatuak batasunera biltzeko premia gero eta larriagoa ikusten genuen, eta urteroko bileretan elkartzen hasi ginen: Oñatiko laterandarrak, Urretxuko pasiotarrak, Areatzako sakramentinoak, Lazkaoko beneditarrak, Oñako jesulagunak, Bilbo-Begoñako karmeldarrak eta abar. 1956-1964. etako ibilera haren berri emanda dago JAKINEN 21. zenbakian (1981).

1964ko abuztuan ere egin zen jakinlarien Arantzazuko urteroko bilera, tartean batasun hobea baten proposamena landuz. Bilera hartan jada deituta zegoen Baionako Biltzarrera (abuztuaren 29-30ean) JAKINEN bileran onartutako arauak proposamen gisa eramatea erabaki zen, ohar txiki bat ondoan zeramala: «Baionan erabakiko zena, alde zuretik onartutzat emango zuela JAKIN aldizkariak».

JAKINEN izenean joatea suertatu zitzaidan. Monzon eta Txillardegiren eskutik zetorren 'Euskal Idazkaritzak' deituriko

biltzarra zen hura. Hegoaldetik, gerraondoko belaunaldi gazteko idazle gutxi-asko trebatuen ahotsa ere bildu nahi baitzen han. JAKINEko 18. zenbakiko 20-28. orrialdeetan jasota dago biltzarreko agiri-testua (1965eko urtarrila).

Batasun-elkarrizketarako dei bezala ulertu zuen JAKINEk Baionako lana, eta halakotzat aurkeztu zien jakinlariei Joan Mari Torrealдай zuzendariak. Egia esan, euskaltzale eliztarrek ez ezik herritar laikoak ere bateratzeko aukera izan zen Baionakoa, eta ordutik egingarriago gerta zitekeen euskara idatziaren batasuna; proposamen tekniko aski landua zen hura, eta borondate sozialez indartua ageri zitzaigun, Hegoaldeko gazteen artean, batik bat.

Egin kontu, gure mundu idatzian, 1960ko hamarkada ikastolagintzaren, testugintzaren, argialetxe eta kazetaritza berrien hamarkada izan zela, gerora etorriko ziren lan idatzi eskolatu handigoen ataria, alegia.

Laster, batuaren alde gizartetik zetorren deia Ermuko Bileran eman zen landu eta osatuago, JAKINEN sarrera editorial batekin aurkeztuta (JAKIN 31-32, 1968). Gerediaga (Lasuen) eta JAKIN (Torrealдай) izan ziren azkenaurreko agiri horren gurasoak. Eta horrela samurtu zitzaion gizartetik Euskaltzaindiari Arantzazun bilduko zen erakunde horren batzarra (1968).

Kostata, baina euskaldungoak eta erakundeek aurrera eramandako asmo arrakastatsua izan da 'euskara batuarena', gure estandarra. Prozesua ez dago itxita, eta euskarak etengabeko garapen modernoak beharko ditu, arruntak, literarioak eta teknikoak. Hizkuntzaren erabilpen idatzia ogibide dutenek ofizioa ikasiz joan dira, modu nabarmenean, eta orain batua mintzatu ere egiten dugu (irakaskuntzan, irratian, telebistan). Estandar horrek baditu, dagoeneko, erro onak.

Baina mendez mende, hainbat eremu eta modutan, bazterturik egondakoak batuak konpondu ez dizkion eskasiak ere baditu. Hizkuntza baliabide bizia da eta aldakorra, eta batuak hizkuntzaren ahalbide berriak urratuz joan beharko du. Denoi gertatu zaigu hori, neurriren batean: lehen orduko

Euskaldunon Egunkaria kostata ulertzen genuenok oraingo kazetariekin gozatu egiten dugu *Berria*-n. Kazetariak eta irakurleok heziz eta osatuz goaz urteen poderioz. Ahalegin horretan denok gara ikasteko ikasle.

Euskara batuaren erronkei dagokienez, lehena eta zailena euskararena berarena da: iraun eta ahal dela indarberritu egin behar dugu. Hori ongi doala, euskara batuak etorkizuna segurtaturik izango duela uste dut, premiazkoa delako eta onartua ere badelako. Kalitateko prosa, olerti ederra, hizkera duina, gizartean hutsarterik gabea, lanbide guztietakoa, berdintasun guztien arteko eskakizunetan bere lekua izan dezakeena. Batuak ez du literatura ederra egiten, idazle onek baizik, eta batuarekin baina haragoko arteziaz lan egin beharko dute idazleek. Gorde ahal izango dugun Euskal Herri osoko hizkera idatzia eta mintzatua ere izango da batua, betiere euskalkien ekarpenen gain ere eraikiz joango dena, hizkuntzaren lurralde osoan eta belaunen jarraibidean joango dena. Hizkuntzak dituen erronka berak ditu batuak ere. 1970eko aurkako eztabaidaren sutea itzali zen, eta jada beste historia batean bizi gara egun. 📖

Joxe Azurmendi

Filosofoa eta Jakin Taldeko kidea

Joseba Intxausti giputza eta Kepa Enbeita bizkaitarra ziren JAKINEN arduradunak, biek gonbidatuta ni laguntzaile izatera sartu nintzenean (1960). Sartu nintzeneko batasunaren eztabaida bazerabilten jada jakinlarien artean. So egile eta ikasle besterik ez nintzen izan ni.

Baina zer arazo zen orduan batasunaren hori? Iparraldetik Manex Erdozaintzi-Etxartek nafarrera ederrean kolaboratzen zuen. Donostiako eta Derioko seminaristek bakoitzak bere euskalkian idazten zuten: *det, dot, dut; nuan, nuen/nun, neban*. Gutunketan eta jakinlarien bileretan bakoitzak bere euskalkian egitea ez zen arazorik (euskalki landu batuan!). Baina aldizkariak bere osoan batasun minimo bat izango bazuen, ez zirudien itxurosoa irakurleak orri batean *det* eta hurrengoan *dot* edo *dut* aurkitzea. Hau da, eztabaidatzen zena funtsean aldizkaria bera zen, aldizkariaren txukuntasunerako behar zen batasuna.

Arrazoi pragmatiko soila, nahi bada; baina substantziala funtzionatzeko. Era berean, laster ikusiko da ikastolentzako testuak ezin zirela egin euskalki bakoitzean.

Hori dena gogoratzen dut, gerora batasunaren arazoak oso bestelako dimentsio ideologiko eta politikoak hartu dituelako. Batentzat *h* iraultzaren ikurra izango da, bestearentzat ETarena (alfabeto grekoan *h* letraren izena *eta*

da). Batasunaren kontuak maila eta zentzu diferenteak ibili ditu. Inoiz ez da izan egiteko gramatikala eta kito, beste lotura batzuk beti izan ditu. Dena den, zorakeriak utzi eta JAKINEN historiara itzuliz: lehenengo maila batean batasunak izan zuen zentzu apala aldizkariari begirakoa izan da, besterik gabe.

Jauzi handia planteamenduan Joseba Intxaustiren ‘Illobira bultzaka’ artikuluak markatu du, berez hizkuntz eredua jorratu arren (garbi?, mordoilo?), zuzen-zuzen kultur eredu planteatzera baitzeraman. Euskara eta modernitatearen arazora. Ongi zegoen Platon eta Virgilio edo San Agustin euskaratzea, baina euskal kultura, hots, euskara modernizatzeke bidea ezin izan zitekeen hori, ezta autore haien hizkuntz eredu ere.

‘Illobira bultzaka’-k zalaparta itzela sortu zuen eta haserre asko –seminarioetako jakinlariekin ere–. Hori ere utzita orain, puntu honetan erabakigarria Intxausti Txillardegirekin, edo Txillardegi JAKINEkin, harremanetan sartzea eta biak borroka berean elkartzea izan zen. Euskarazko kultura moderno baten premia eta euskararen batasunarena bateratu egin ziren. Batasunaren arazoak arras beste dimentsio bat hartzen du maila honetan. Euskara batua kultura moderno baterako exigentzia bihurtzen da.

Txillardegik beste dimentsio bat ere bazekarren: naziotasunarena. Nazio batek hizkuntza batu bat behar du nazio gisa sendotzeko, ez auzune sakabanatu gisa biziraun bakarrik. Ikuspegi hori garrantzizkoa izan da gure belaunaldi guztiarentzat. Euskalkiak hor daude, eta ongi daude, baina hizkuntza nazionala euskara batua da.

Maila honetan lana eta borroka aurrera eramán duena Txillardegi izan da, bitartean Hego Euskal Herritik Iparraldera ihesi joana, eta JAKIN haren borrokari eta lanari atxiki zaio. Batasuna eztabaidatzen genuenean, gogoratzen dut ni neu, esate baterako, *h*-ren aurka egon nintzela, Hegoaldeko irakurleria apurra ikaratu eta aienatu egingo genuen beldurrez. Baina JAKINEN delibero bat genuen denok tinko hartua:

Baionan Txillardegik eta haren ekipoak erabakitzen zuten batasuna JAKINEk berea egingo zuen.

Batasunaren aita Txillardegi izan da. Eta, esango nuke, batasunaren arloan Txillardegik izan zuen sostengurik irmoena, JAKIN. 🐞

Paulo Agirrebaltzategi

Teologoa eta Jakin Taldeko kidea

Urte haietan ni neu ere Arantzazun bizi arren, ez nintzen Jakin Taldekoa; beraz, ez nuen parterik izan aldizkariak hartu zuen erabaki hartan. Baina nahikoa hurbildik jarraitzen nituen taldearen lanak eta gorabeherak; besteak beste, taldeko baten ondoan nengoelako eskolan, behin baino gehiagotan aldizkariko lanetan bera.

Dena dela, ondorengoetatik atzera begiratuta, guztiz bizidzkoa iruditzen zait JAKINEK erabaki hura hartu izana, betidaniko helburua zuelako aldizkariak tresna moderno eta egoki bihurtzea euskara: jakintza-eremu guztietarako eta ametsetako Euskal Unibertsitaterako baliozko eta baliagarri.

Berrogeita hamar urte gutxi dira horrelako prozesu soziokulturala sendotu eta finkatzeko. Zinez harrigarria da 50 urteotan egindako bidea eta iritsitako helmuga. Begiratu beharreko helmugak daude aurrean, baina jakinez beti azken helmugarik ez duela hizkuntza biziaren prozesu historikoak, beti irekia delako.

Argi dago euskal gizarteak eta bereziki euskal kulturako jendeak benetan sentitzen zuela euskaldun guztiontzako euskararen forma estandarra eratzearen beharra: batetik, Euskal Herriaren herrigintzarako (eskola, komunikabideak, administrazioa...), eta, bestetik, gaurko mundu modernoaren mailako euskal kulturgintzarako.

Ondorioz, bestelako errespetagarritasuna ere lortu du *euskarak*, euskaldunon eta erdaldunen artean, kontrakorik badirudi ere batzuetan.

Etorkizunari begira, ordua da ‘euskara batua’ terminoari ‘batua’ adjektibo hori kentzeko. Euskalkien arteko euskalki artifizialtzat hartzen baitute batzuek ‘euskara batua’, ‘bizkaiera’ eta ‘gipuzkera’ eta bestelako ‘-era’ guztien arteko edo gaineko ‘batueratzat’ edo.

Hizkuntza bakarra da, ordea, *euskara*; horren adierazgarria eta bermea da euskara ‘batua’ edo estandarra. Beraz, *euskara* dago (euskaldun guztiena eta guztientzako estandarizatzea) eta euskalkiak daude (dialektoak, soziolektoak, teknolektoak...). *Euskara* hizkuntza bizia den neurrian, forma estandarrean eta euskalkietan bizi da: horien eta haren arteko harremanak bizia eta dinamikoa behar du izan.

‘Euskara batuaren’ gaurko erronkak, beraz, *euskararenak* dira. Funtsean, eta nagusienik, horren erabilera eta bizia, gizarteko bizi-maila, bizi-era, eta bizi-eremu guztietan: horrela izango dira euskalki bizi guztiak *euskara* biziaren bizigarri eta aberasgarri. 📖